

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko ekaina

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

4. Kanpo merkataritza

5. PMI konposatua

6. Enplegauren igurikimenak

7. Europako Batzordearen aurreikuspenak

8. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioen jaitsiera maitzean leundu zen.

Jarduerari berriro ekiteak afiliazioak areagotu ditu eraikuntzan eta lehen arloan.

2. Langabezia erregistratua berriro igo zen maitzean, baina martxoan eta apirilean baino gutxiago.

Langabeziaren hazkundeak bereziki zerbitzuak kaltetu ditu.

3. Kontsumoko prezioak merkatu dira urte arteko tasan.

Erregaien prezioak berriro baldintzatu du KPlaren bilakaera apirilean.

4. Pandemiak hondoratu egin ditu EAEko esportazioak atzerrira.

Lehen hiruhilekoan, salmenten urte arteko tasa $-9,9\%$ izan zen.

5. Deseskalatzeak enpresen konfiantza hobetzea ekarri du

Euroguneko PMI konposatua hamazazpi puntu igo da maitzean.

6. Enpleguari buruzko igurikimenak zertxobait hobetu dira Europan.

Hala ere, indizea urrun dago normaltzat jotzen den egoera batetik.

7. Atzeraldi ekonomiko sakona Europan

Europako Batzordeak $7,4\%$ an zenbatetsi du BPGaren jaitsiera 2020an.

8. Hilabeteko laburpena.

Deseskalatzeak argi izpi bat jarri du tunelaren amaieran.



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioen jaitsiera maiatzean leundu zen

Gizarte Segurantzako afiliazioaren maiatzeko datuek erakusten dute koronabirusari aurre egiteko hartu diren neurriek eragina izaten ari direla lan merkatuan. Izan ere, estatistika horren urte arteko jaitsiera %2,3 izan da, hau da, 22.400 afiliazio galdu dira iazko maiatzaren aldean. Horietatik 16.300 gizonezkoak ziren eta 6.100 emakumezkoak. Portaera ezberdin horren arrazoia da, neurri batean, zaintzaile ez-profesionalen eragina, gehienbat emakumeak baitira, Espainiako gober-

nuak 2019ko maiatzetik Gizarte Segurantzari beraien kuotak ordaintzeko hartu zuen erabakiaren onuradunak direlako.

Apirileko datuekin alderatuta, 2.100 afiliazio baino ez dira galdu maiatzan; apirilean, berriz, 18.400 afiliatu galdu ziren. Beraz, badirudi eragina leuntzen ari dela deseskalatzearekin eta jarduerara itzultzearekin. Izan ere, maiatzan zertxobait handitu zen afiliazio kopurua lehen sektorean eta eraikuntzan.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

MAIATZAKO AFILIAZIOA


-%2,3



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Urte arteko tasan, ia jarduera adar guztiek afiliazioak galdu dituzte, baina galera bereziki garrantzitsua da manufakturretan, ostalaritzan eta administrazio jardueretan (ABLEak barnean hartzen ditu adar horrek). Joera horren salbuespena administrazio publikoa (afiliazioa zertxobait handitu

da) eta osasun arloko jarduerak (8.500 afiliazio baino gehiago irabazi dituzte) dira. Afiliazio berri horietako asko (5.700 inguru) zaintzaile ez-profesionalei dagozkie, eta gainerakoak Covid-19ko pandemiari aurre egiteko kontratatutako pertsonak dira.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2019ko maiatza	2020ko maiatza	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	969.287	946.886	-22.401
Industria manufakturagileak	176.681	170.465	-6.216
Merkataritza	137.812	133.804	-4.008
Osasun arloko jarduerak	97.352	106.003	8.651
Hezkuntza	74.752	73.211	-1.541
Ostalaritza	68.575	63.327	-5.248
Administrazio jarduerak	66.332	61.186	-5.146
Lanbide jarduerak	56.988	56.029	-959
Eraikuntza	56.947	55.349	-1.598
Administrazio publikoa	48.478	48.670	192
Garraioa	42.290	41.187	-1.103
Etxeko langileak	30.172	28.536	-1.636
Bestelako zerbitzuak	28.608	27.187	-1.421
Informazioa eta komunikazioa	23.224	22.840	-384
Finantza jarduerak	18.118	17.396	-722
Jarduera artistikoak	16.830	15.929	-901
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.468	13.434	-34
Or horniketa	6.109	6.100	-9
Higiezen jarduerak	4.115	4.112	-3
Energia horniketa	1.806	1.513	-293
Erauzketa industriak	568	551	-17
Lurraldez kanpoko erakundeak	60	57	-3

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabezia erregistratua berriro igo zen maiatzean, baina martxoan eta apirilean baino gutxiago

Maiatzean, 141.715 langabe erregistratu zeuden Euskadin, Lanbideren bulegoek emandako datuen arabera. Martxoan eta apirilean bezala, koronabirusaren krisiak eta horrek ekoizpen jardueran duen eraginak ekarri duten salbuespenezko testuinguruan baloratu behar da igoera hori. Aurreko hilabetearekin alderatuta, 3.000 langabe gehiago daude bakarrik, aurreko bi hilabeteetan langabe-


en igoera 10.000 pertsonatik gorakoa izan zen bitartean. Generoaren arabera azterketak adierazten du maiatzean ere langabeziaren igoerak nabarmenago eragin ziela gizonei emakumezkoei baino. 25 urtetik beherako biztanleriak ere neurri handiagoan sufritzen du igoera, eta beraien urte arteko aldakuntza tasak (%36,5) nabarmen gaindizten du biztanleria osoarena (%24,5).

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. MAIATZA

+%24,5




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Sektore ekonomikoak kontuan hartzen badira, erregistratutako langabeziaren gorakada nabar-menagoa izan zen berriro zerbitzuetan, pandemi-ari eusteko jardura eteteak eragin handiagoa izan baitzuen beraietan. Hala izanda, 21.399 per-sona gehiago daude lanik gabe zerbitzuetan, ba-tez ere ostalaritzan, txikizkako merkataritzan eta hezkuntzan. Gehikuntza absolutuetan, zerbitzue-tan lagundu zuen sektorea industria izan zen, ia

4.000 langabe gehiagorekin, nahiz eta urte arteko aldakuntza tasetan hirugarren sektorea baino pix-ka bat handiagoa izan haren igoera (%29,2 eta %28,4, hurrenez hurren). Azkenik, atzerago geratu zen eraikuntzaren sektorea, langabeen kopurua 1.372 handitu baitzen. Zifra horiek beste sektoree-takoak baino txikiagoak dira, hein batean, erai-kuntzari ia konfinamendu osoan jardura jakin batzuk egiten jarraitzeko aukera eman zitzaiolako.

LANGABEAK

	2019ko maiatza	2020ko maiatza	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	113.873	141.715	27.842
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.987	23.782	4.795
Bizkaia	64.953	79.616	14.663
Gipuzkoa	29.933	38.317	8.384
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	48.625	64.123	15.498
Emakumeak	65.248	77.592	12.344
25 urtetik beherakoak	8.278	11.301	3.023
25 urte baino gehiago dutenak	105.595	130.414	24.819
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.411	2.726	315
Industria	13.410	17.321	3.911
Eraikuntza	8.024	9.396	1.372
Zerbitzuak	75.256	96.655	21.399
Lehenago lan egin dutenak	99.101	126.098	26.997
Lehenago lan egin ez dutenak	14.772	15.617	845
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	17.970	22.837	4.867

Iturria: SEPE.




Departamento de
Hacienda y Economía

INFLAZIOA

Kontsumoko prezioak merkatu dira urte arteko tasan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Apirilean, EAEko KPI indizea -%0,5era jaitsi zen urte arteko tasan, konfinamenduak sortu duen egoerak baldintzatuta. INEk azaldu duenez, alarma egoera deklaratu izanak eragin du ondasun eta zerbitzuen zati handi bat eskuragai ez egotea, edo soilik webgunearen bidez eskuratu zitezkeen. Horri gehitu behar zaio prezioen bilketa telematikoki egin zela, eta horrekin batera prezio asko zenbatetsi egin behar izan zirela.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,5	-0,5
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	1,1	0,8
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,8	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,4	0,1
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	1,3	0,5
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-7,5	-1,3
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	6,6	0,5
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-16,7	-1,8


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Beste behin ere, erregaien prezioak izan ziren inflazioaren beherakada horren erantzule nagusiak, nahiz eta petrolioaren merkatuak bere krisi txikia honezkero atzean utzi duela dirudien. Hori horrela, garraioa eta etxebizitza taldeek hilabete-an erregistratu zen prezioen jaitsiera ia osoa eragin zuten. Zehazkiago azalduta, garraioaren aldakuntza tasa lau puntu eta bi hamarren jaitsi zen, eta -%6,7an geratu zen, ibilgailu pribatua oso gutxi erabili delako konfinamendu horretan

eta, orobat, salgaien garraioa funtsezko zerbitzu-etara mugatuta egon delako. Era berean, etxebizitza-taldea -%4,7tik -%6,2ra igaro zen, elektrizitatearen eta berokuntzarako erregaiaren prezioetan merkatzeak erregistratu ondoren. Bestalde, janariak eta alkoholik gabeko edariak inflazioaren beherakada murriztu zuten, multzo hori % 3,9 garestitu zelako, 2013ko erdialdetik izandako erregistrorik handiena delarik.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte ateko aldakuntza tasa. 2020ko apirila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,5	-0,7	0,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,9	4,0	3,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,3	0,7	3,2
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	-0,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-6,2	-6,6	-1,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,4	0,8
Osasuna	0,4	0,2	0,9
Garraioa	-6,7	-6,8	-3,6
Komunikazioak	0,7	0,7	-1,4
Aisia eta kultura	-0,2	-0,1	0,4
Hezkuntza	1,4	0,9	0,3
Jatetxeak eta hotelak	1,5	1,7	1,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,9	1,4	1,6

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



Departamento de
Hacienda y Economía

Pandemiak atzerrira egindako EAEko esportazioak hondoratu ditu

Eustatek berretsi du EAEko esportazioak aurtengo lehen hiruhilekoan amildu egin zirela. Martxoko bigarren hamabostaldian jarduera gelditu izanak %21,5 hondoratu zituen salmentak hilabete horretan eta, horren ondorioz, hiruhileko balantzean salmentak %9,9 jaitsi ziren. Guztira, 5.568 milioi euro balio zuten produktuak esportatu ziren, 2016ko amaieratik inoiz jaso den diru kopururik txikiena baita. Sektore guztiak oso nabarmen uz-kurtu ziren, salbuespena lehen sektorea izan zela-


rik. Kaltetuenen artean, metal arruntak eta beren manufakturak (-%14,6) eta automobilgintzaren sektorea (-%13,9) daude, batez ere Mercedes Benz eta Michelin enpresen geldialdiaren ondorioz. Bar-ne jarduera ere erabat baldintzatu zuen pandemi-ak, eta haren geldialdia inportazioetan nabaritu zen, %11,5 jaitsi baitziren lehen hiruhilekoan. Bi kopuru horien saldoa, guztira, 1.004 milioi eurora iritsi zen.

ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA

-%9,9





INPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro


MERKATARITZA SALDOA GUZTIRA

Milioi euro




ESPORTAZIOAK ALEMANIARA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK FRANTZIARA


Urte arteko aldakuntza tasa



28 kidez osatutako Europar Batasuna izan zen berriz ere EAEko esportazioen helmuga nagusia, eta esportatutako guztiaren ia %70,0 bereganatu zuen, 2008ko krisiaz geroztik izan duen merkatu kuotarik handiena baita. Datu on hori gorabehera, Covidek Europako bazkide nagusiei ere eragin zien, eta, beraz, haren eskaera maila nabarmen murriztu zen, eta salmentek beherakada handiak izan zituzten. Bitxia bada ere, Txinak, pandemia osoaren epizentroak eta lehen hiruhilekoan bere itxiera eta konfinamendu luzearen ondorioz gehien kaltetu den herrialdeak, EAEko produktuen erosketa handitu zuen lehen hiruhilekoan.


ESPORTAZIOAK ERRESUMA BATURA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK TXINARA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK AEB-ETARA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Deseskalatzeak enpresen konfiantza hobetzea dakar


Bi hilabetez beherakada biziak jaso ondoren, maiatzean euroaren eremuko PMI indize konposatua 30,5 puntutan kokatu zen, gutxi gorabehera apirileko datua baino 17 puntu gorago eta martxoko datua (29,7) pixka bat gaituta. Azken bi hilabeteetako mugimenduen simetria horrek ez du esan nahi hurrengo datua jada hedapen eremuan egongo denik, V itxurako susperraldi bat osatuz.

Irudi horretatik urrun, espero izatekoa da hurrengo hilabeteetan hautemango ditugun hobekuntzak apalagoak izatea.


Bi sektoreek hobera egin dute aurreko hilabetearekin alderatuta, baina aurrerapena nabarmenagoa da zerbitzuetan; hain zuzen ere, pandemiari eusteko eta urruntze sozialerako neurriek gehien kaltetu duten sektorea da.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2020ko MAIATZA
30,5




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Eurogunerako deskribatu den portaera eredua bera osatzen duten herrialde nagusietan errepikatzen da; Alemaniarako eta Frantziarako balioak 31,4 eta 30,5 dira, hurrenez hurren. Erresuma Batuak ere parte hartzen du mugimendu horietan, eta bere indizea %28,9an dago.

Bestelakoa da Europakoak ez diren ekonomia garatuen bilakaera, ezkortasunak ez baitzuen hain eragin handirik izan. Japoniaren kasuan, PMI konposatua 25,8raino soilik murriztu zen, eta maiatzeko susperraldia bi puntu baino gutxiagokoa izan da. AEBetan, apirileko 27,0 puntuek markatu zuten gutxienekoa, eta maiatzean hamar puntu baino gutxiago berreskuratu ditu.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. JAPONIA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Markit.


ENPLEGUARI BURUZKO IGURIKIMENAK

Enpleguaren igurikimenak zertxobait hobetu dira Europan

ENPLEGUAREN IGURIKIMEN INDIZEA EUROGUNEA


2020ko MAIATZA
70,2

Europako Batzordeak argitaratutako informazioaren arabera, apirileko jaitsieraren ondoren, maiatzean zertxobait suspertu dira enpleguari buruzko igurikimenak. Hala erakusten du enpleguaren igurikimen indizeak (EEI, ingelesezko siglengatik), euroaren eremuan apirilean 58,9 izatetik, serie historikoko baliorik baxuena baitzen, maiatzean 70,2 izatera igaro baita. Beraz, hamar puntutik gorako suspertzea da, baina indize horrek 2000. urtetik izan duen batez besteko balioaren (100) oso azpitik dago oraindik.




Oro har, indizea kalkulatu den herrialde guztiek erakusten dute beherakada eta ondorengo hobekuntza handi hori, nahiz eta intentsitatea, bai beherakadarena bai susperraldiarena, oso desberdina den bakoitzean. Alde batetik, aurreikuspenen okertzea ez zen oso garrantzitsua izan Alemanian, apirilean 78,7ko balioa izan baitzuen eta orain 81,7ra igo baita. Bestalde, ezkortasuna askoz handiagoa izan zen Frantzian, apirilean indizea 47,9ra arte jaitsi baitzen, eta maiatzean 58,2ra arte errekuperatu.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ALEMANIA




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. FRANTZIA




Espainia aipatutako bi herrialdeen arteko tarteko egoera batean kokatzen da. Apirileko jaitsierak 64,7ko balioan utzi zuen indizea eta, Frantzian gertatu den bezala, serie historiko osoko daturik baxuena da. Geroztik, maiatzeko ondorengo susperraldiak 78,0ra igo du indizea. Beraz, susperraldi bizia da, 13 puntu baino gehiagokoa, baina oraindik pertzepzioa 22 puntutan hobetzea falta da martxoko datura eta batez besteko historikora itzultzeko.


ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ESPAINIA



ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK, HERBEHEREAK




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. BELGIKA



Europako herrialdeen mosaikoan, deigarria da Portugalen bilakaera, koronabirusaren pandemiari ondo erantzuten ari den herrialdea baita. Herrialde horretan, igurikimenak oso baikorrak ziren birusa zabaldu aurretik, eta apirilean 74,6ra arte jaitsi ziren, baina maiatzean 92,2ra berreskuratu dira, 17 puntu baino gehiagoko hobetuta. Tamaina ertaineko beste herrialde batzuk aipatzearen, Belgika 70,7an dago gaur egun eta Herbehereak, berriz, 83,5ean.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. PORTUGAL



Iturria: Europar Batzordea.




EUOPAR BATZODEAREN AURREIKUSPENAK

Atzeraldi ekonomiko sakona Europan

EUOPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordeak udaberriko txostenean argitaratu berri dituen aurreikuspenen arabera, Europar Batasunaren hazkundea %7,4 jaitsiko da 2020an eta, batez beste, %6,1 haziko da gero, 2021ean. Eurogunean, urteko aldakuntza tasak -%7,7 eta %6,3 izango dira 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren. Covid-19ak eta berau geldiarazteko hartu diren premiazko neurriek Europako atzeraldi ekonomikorik sakonena eragin dute.


Pandemiak biziki eragin die eskari globalari, eskaintza kateei, lan merkatuari, ondasun eta kapital fluxuei eta, azken batean, hibernazio egoera batean murgildu du munduko ekonomia.

BPG. EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Europar Batasuna	1,5	-7,4	6,1	-8,8	+4,7
Eurogunea	1,2	-7,7	6,3	-8,9	+5,1
Alemania	0,6	-6,5	5,9	-7,5	+4,9
Belgika	1,4	-7,2	6,7	-8,2	+5,7
Espainia	2,0	-9,4	7,0	-10,9	+5,6
Frantzia	1,3	-8,2	7,4	-9,5	+6,2
Italia	0,3	-9,5	6,5	-9,9	+5,8
Herbehereak	1,8	-6,8	5,0	-8,1	+3,7
Portugal	2,2	-6,8	5,8	-8,5	+4,1
Irlanda	5,5	-7,9	6,1	-11,4	+2,9
Grezia	1,9	-9,7	7,9	-12,0	+5,9
Austria	1,6	-5,5	5,0	-6,9	+3,6


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2020ko bigarren hiruhilekoak aurrekaririk gabeko kolapsoa ekarriko dio ekonomiari. Aurreikuspenen arabera, euste neurriak pixkanaka altxatuko dira, Covid-19 kontrolpean egon eta jarduera ekonomikoari berrekingo zaion neurrian. Moneta eta zerga politikak ere eraginkorrak izatea espero da, Europako ekonomian eragin negatiboa gutxitzeko. Hala eta guztiz ere, ziurgabetasun handia dago susperraldiaren inguruan.

2021erako aurreikuspenak hazkunde handikoak dira, eta jarduera ekonomikoa nabarmen suspertuko da. Hala ere, BPGaren mailak 2019an zeudenak baino txikiagoak izango dira.

LANGABEZIA TASA. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Europar Batasuna	6,7	9,0	7,9	+2,8	+1,7
Eurogunea	7,5	9,6	8,6	+2,2	+1,3
Alemania	3,2	4,0	3,5	+0,6	0,0
Belgika	5,4	7,0	6,6	+1,6	+1,3
Espainia	14,1	18,9	17,0	+5,6	+4,2
Frantzia	8,5	10,1	9,7	+1,9	+1,7
Italia	10,0	11,8	10,7	+1,8	+0,7
Herbehereak	3,4	5,9	5,3	+2,2	+1,2
Portugal	6,5	9,7	7,4	+3,8	+1,8
Irlanda	5,0	7,4	7,0	+2,4	+2,0
Grezia	17,3	19,9	16,8	+4,5	+2,8
Austria	4,5	5,8	4,9	+1,2	+0,3

Iturria: Europar Batzordea.



Departamento de
Hacienda y Economía



Deseskalatzeak argi izpi bat jarri du tunelaren amaieran

Maiatzean ere oso nabariak izan dira osasun alertaren ondorioak eta jarduera ekonomikorako ezarri diren mugak. Hala eta guztiz ere, adierazle aurreratutzat jotzen direnetako batzuek aldatu egin dute haien bilakaeraren norabidea. Kasurik deigarriena PMI konposatuena da. Zehatz-mehatz adierazita, **euroaren eremuan, adierazle hori apirilean jaso zuen 13,6 baliotik maiatzeko 30,5era igaro da**. Datu hori oraindik ere oso negatiboa da, eta Atzeraldi Handiko unerik txarrean erregistratutako hura (36,2 2009ko otsailean) baino are okerragoa da, baina, zalantzarik gabe, aurrerapena da apirilean bizi izan zen paralisiarekin alderatuta. Hobekuntza bi osagai nagusietan bizi izan zen. Alde batetik, zerbitzuen sektorearen adierazlea apirileko 12,0tik maiatzeko 28,7ra igaro da, eta manufaktura, berriz, 18,1etik 35,4ra. Jarduerari pixkanaka itzuli izana da hobekuntza horren atzean dagoen arrazoi nagusia. Txina jarraitu beharreko ekonomia da, pandemia gainerako herrialdeak baino lehenago sufritu zuelako, eta susperraldia ere lehenago gertatuko delako bertan. Ildo horretan, itxaropentsua da bere PMI manufaktura indizeak maiatzean 50eko balioa gainditu izana, hazkunde eremua markatzen duen langa baita.

Europako Batzordeak beste estatistika bat argitaratzen du, uneotan interes handia duena: enpleguari buruzko igurikimenak. Sentimendu ekonomikoan bezala, apirilean serie historikoko daturik txarrena jaso zen bai Europar Batasunean, bai euroaren eremuan eta baita herrialde askotan ere. **Eta maiatzeko susperraldia garrantzitsua izan da**. Adibidez, indize hori 59,6tik 70,9ra igo da Europar Batasunean, eta 64,7tik 78,0ra Espainian. Oso datu negatiboak izaten jarraitzen dute, eta 100 balioa berreskuratzea kostatuko da, baina lehen aurrerapausoa da.

Aipatutakoen ildotik doan beste adierazle bat Alemaniako Ifo indizea da, apirilean 74,2ko balioa izatetik maiatzean 79,5koa izatera igaro baita. Beraz, hobekuntza txiki bat da. **Hain ezkorra ez den datu hori etorkizunari buruzko igurikimenetan oinarritzen da soil-soilik**, 69,4tik 80,1era igaro baitira, aurrerapen esanguratsua baita. Aitzitik, egoerari buruzko pertzepzioa jasotzen duen adierazleak okerrera egin du pixka bat, 79,4tik 78,9ra jaitsita.

EAEko ekonomiari dagokionez, ezagutzen ari diren koiunturako datuak jarduera bertan behera utzi izanak gehien kaltetutako hilabetei dagozkien, eta, beraz, oso negatiboak dira. Hala eta guztiz ere, Gizarte Segurantzako afiliazioak eta maiatzean erregistratutako langabeziak pentsarazten dute **deseskalatzearen hasiera lan merkatuaren okertzea leuntzen ari dela, oraindik oso gutxi leundu bada ere**. Egia da maiatzean afiliazioaren urte arteko aldakuntza tasa -%2,3 izan dela, eta -%2,9koa, berriz, serietik kentzen bada zaintzaile ez-profesionalen eragina, baina egia da, halaber, apirilean 18.400 afiliazio galdu ziren bitartean, maiatzean 2.100 baino ez zirela galdu. Orobat, azken hilabete horretan lehen sektorean eta eraikuntzan afiliazioa zertxobait handitu zen apirilarekin alderatuta. Modu simetrikoan, erregistratutako langabeziaren igoera oso handia izan zen urte arteko tasan (%24,5), eta ia 28.000 pertsonari eragin zien, baina apiriletik maiatzera 3.100 pertsonatan baino ez zen igo, martxoan eta apirilean 10.000 pertsonatan baino gehiago igo zen bitartean. Beraz, argi izpi bat ikus daiteke tunelaren amaieran.

ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
BPG	3,0	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-3,0
Barneko azken kontsumoa	2,5	1,9	2,1	1,9	1,9	1,7	—
Familien kontsumoa	2,7	1,9	2,2	1,9	1,8	1,5	—
Administrazioaren kontsumoa	1,6	2,1	1,9	2,1	2,2	2,2	—
Kapital eraketa gordina	4,7	2,8	4,0	2,5	2,2	2,4	—
Barne eskaria	3,0	2,1	2,6	2,0	2,0	1,9	—
Esportazioak	3,0	0,4	-1,4	2,8	-0,9	1,3	—
Inportazioak	3,0	0,4	-0,8	2,6	-0,9	0,9	—
Lehen arloa	7,9	0,6	1,7	-0,1	0,2	0,4	—
Industria eta energia	2,5	1,1	0,4	1,0	0,8	2,3	—
Eraikuntza	4,1	3,1	4,6	3,2	2,9	1,9	—
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,6	2,5	2,5	2,2	—
Balio erantsi gordina	2,8	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,1	2,2	2,1	1,8	2,3	—
Enplegua	2,6	1,6	1,8	1,7	1,6	1,3	-3,1

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2020				2020	2021
	I	II	III	IV		
BPG	0,1	-6,2	-4,5	-3,9	-3,6	2,6
Barneko azken kontsumoa	0,7	-4,6	-3,2	-2,8	-2,5	2,4
Familien kontsumoa	-0,3	-8,1	-4,9	-4,3	-4,4	3,5
Administrazioaren kontsumoa	4,4	8,4	3,1	2,6	4,6	-1,2
Kapital eraketa gordina	0,5	-7,6	-4,8	-4,5	-4,1	3,2
Barne eskariaren ekarpena	0,7	-5,5	-3,8	-3,3	-3,0	2,7
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,6	-0,8	-0,7	-0,6	-0,6	-0,1
Lehen arloa	7,8	-9,6	-6,7	-9,9	-4,6	5,9
Industria	-1,5	-6,8	-4,0	-3,5	-3,9	3,0
Eraikuntza	0,6	-4,6	-3,2	-2,9	-2,5	1,7
Zerbitzuak	0,4	-5,8	-4,2	-3,6	-3,3	2,2
Balio erantsi gordina	0,1	-6,0	-4,1	-3,6	-3,4	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	0,4	-7,8	-7,5	-6,6	-5,4	3,8
Enplegua	-0,3	-4,0	-2,2	-0,4	-1,7	1,6

EAĖKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
AFI	-7,5	—	CEPREDE	-7,8	6,5
BBVA	-7,3	5,8			

ESTADÍSTICA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
BPG	2,4	2,0	2,2	2,0	1,9	1,8	-4,1
Kontsumo pribatua	1,8	1,1	1,3	0,7	1,3	1,2	-6,7
Kontsumo publikoa	1,9	2,3	2,3	2,3	2,2	2,4	3,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	1,8	4,8	0,5	1,4	0,6	-6,7
- Aktibo finko materialak	6,2	1,7	5,8	0,2	1,1	-0,1	-8,8
- Eraikuntzan	6,6	0,8	4,0	1,7	0,0	-2,2	-11,9
- Ekipamendu ondasunetan	5,7	2,6	8,3	-2,5	2,4	2,6	-4,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,1	2,2	0,4	1,9	2,6	4,0	4,3
Nazio eskaria (ekarpena)	2,6	1,5	2,1	1,1	1,5	1,3	-4,3
Esportazioak	2,2	2,6	0,8	2,6	3,6	3,3	-6,3
Inportazioak	3,3	1,2	0,4	-0,2	2,7	2,1	-7,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
AFI	-8,9	6,2	IEE	-11,0	5,5
Axesor	-10,8	6,9	Intermoney	-9,4	6,8
BBVA	-8,0	5,7	Mapfre Economics	-8,2	1,7
CaixaBank	-7,2	6,9	Repsol	-11,9	9,5
Cámara de Comercio España	-10,6	4,3	Ygroup Companies	-13,0	6,5
Cemex	-9,5	5,0	Universidad Loyola Andalucía	-9,8	7,2
CEEM-URJC	-9,2	6,8	Consenso (batez bestea)	-9,5	6,1
CEPREDE-UAM	-6,6	6,3	Gobernua (04-2020)	-9,2	6,8
CEOE	-10,2	5,9	Espainiako Bankua (05-2020)	-9,5 / -12,4	6,1 / 8,5
Equipo Económico (Ee)	-10,0	7,2	Europar Batzordea (05-2020)	-9,4	7,0
FUNCAS	-8,4	6,0	NDF (04-2020)	-8,0	4,3
ICAE-UCM	-8,5	5,6	Consensus Forecast (05-2020)	-9,1	6,7

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: analistas financieros internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CEOE: Confederación española de organizaciones empresariales, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Economist intelligence Unit, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Universidad Loyola Andalucía, Ygroup Companies

ESTADÍSTICA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
AEB	2,9	2,3	2,7	2,3	2,1	2,3	0,2
Txina	6,6	6,1	6,4	6,2	6,0	6,0	-6,8
Japonia	0,3	0,7	0,8	0,9	1,8	-0,7	-2,2
Kanada	2,0	1,6	1,5	2,0	1,6	1,5	-1,4
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,7	1,5	1,6	1,3	-2,6
Eurogunea	1,9	1,2	1,4	1,2	1,3	1,0	-3,2
Alemania	1,5	0,6	1,0	0,3	0,7	0,4	-2,3
Frantzia	1,7	1,3	1,3	1,5	1,5	0,9	-5,4
Erresuma Batua	1,3	1,4	2,0	1,3	1,3	1,1	-1,6
Italia	0,8	0,3	0,2	0,4	0,5	0,1	-4,8
Herbehereak	2,6	1,7	2,0	1,6	1,8	1,6	-0,6

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020KO MAIATZA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	-5,4	4,3	0,7	1,8	10,1	8,1
Japonia	-5,5	2,4	-0,4	0,1	3,1	3,1
Kanada	-6,8	5,3	0,6	1,8	9,9	7,6
Europar Batasuna	-7,2	5,6	0,5	1,2	—	—
Eurogunea	-7,9	6,2	0,3	1,1	9,7	9,2
Alemania	-6,3	5,2	0,6	1,4	6,0	5,8
Frantzia	-8,2	6,7	0,3	1,2	10,1	9,7
Erresuma Batua	-7,9	6,1	1,0	1,4	7,6	6,7
Italia	-9,9	6,3	-0,2	0,6	11,7	11,4
Espainia	-9,1	6,7	-0,4	1,0	—	—
Herbehereak	-6,2	4,7	0,6	1,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.